

Bizigiro

ASTEBURUKO PROPOSAMENAK

Azken notak

Musikaren Egunak, 30 urteak bete, eta azken aldia eskainiko du: gaurtik etzira arte Urdiñarbe osoki hartuko dute musikak eta bestek



Ainize Madariaga



Asteburu osoan musikak eta animazioek hartuko dute Urdiñarbe. BOB EDME

2019ko ekainak 8



Musikaren Egunak adioak erranen ditu aurten Urdiñarben (Zuberoa), 30 urte beteko dituen honetan. Haatik, Bil Xokoa elkarte antolatzaileak segituko du lanean. «350 talde baino gehiago ekarri ditu; jaialdiak badu historia handia, eta, gauza on guziet bezala, jakin behar da uzten, bortxazko gauza bat bilakatzen utzi gabe», esan du Jean-Jacques Etxeberry *Llargo*-k. Gogoetatzeko eta pausa bat egiteko tarte horretan ikusiko dute Musikaren Egunak segidarik ukanen ote duen beste «ibilmolde» batez. «Ez ote da Bil Xokoa elkarte bat tipiegia horrelako festibal baten muntatzeko? Beharbada beste herrietako elkarteekin juntatuz segi lezake?», galdetu dio bere buruari Etxeberry. Hasteko, onartu du «festibal tipia» eman diotela Zuberoari, zeinak euskara, euskal kultura eta kanpoarekiko irekidura ardatz izan dituen.

Oroitu ditu hiru hamarkadetako une azkarrak; adibidez, Gatibuk jo behar zueneko hartaz: «Zuhaitz bat harrietara eroririk, erreka gainezka egin zuen eta aro ezinago txarra zen, baina kausitu genuen kontzertu horren ematen!». Ez du ahortzi egungo kideen laguntza, eta bidean utzi dituztenena ere, hala nola Dominika Agergarai zenarena.

Euskarazko gaualdiak hasi ziren bart: herriko gazteen «sorpresa-performancearekin», maskaradez, bertsolariekin, *Ez dok hiru* antzerkiarekin eta Musik'alde txarangaren doinuekin. Gaur, plazan, 15:00etatik aitzina hasiko da besta. Eta, bihar, 11:00etatik goiti, zernahi animaziok beteko du Urdiñarbe.

Musikaren Eguna

Gaur, egun osoz, Urdiñarben (Zuberoan).

Gehien irakurriak

1 Ehunka lagun Arrasaten, euskal presoek eskubideen aldeko bilkuran

IÑAKI AGIRRE - JON ORDOÑEZ GARMENDIA

2 Praga, 'mon amour'

JOSE MARI PASTOR

3 Besarkada handi bat zinemari

MIKEL LIZARRALDE

4 Alfonso Sastre hil da

IÑIGO ASTIZ

5 Euskal Herriko trenbide sare osoa, lehen aldiz plano bakar batean

JONE ARRUABARRENA